



**Pil-pilean**

Soraluzeko hilabetekaria  
2018ko otsaila · 336. alea

TOKIKOM

**SORALUZE, MUGITUZ!**  
**Abiatzeko gertu**



## AURKIBIDEA

- 4 Bote prontuan** Iurdana Laskurain
- 6 Begira** Estaziñoko parkea
- 8 Zer berri** Aktualitateko albisteak
- 13 Plazan bazan** Umeendako jolasak
- 14 Argazki bidez** Aratusteak
- 18 Erreportajea** Soraluze, mugituz!
- 22 Kirola** Ane Fidalgo Ezenarro
- 24 Kultura** Euskara Sardinian eta abesbatzaren ate irekiak
- 25 Gure artistak** Josean Fulgencio
- 26 Nondik nora** Veronica Ines Tello
- 28 Sakonean** Ezenarro anaiak
- 30 Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...

## Iritzia

- 3 Neuretik** Eguzkiñe Aldazabal *Utopia*
- 16 Gutunak** Mesedeetako ahizpak Haititik / Bittor Treviño
- 16 Komiki tira** *Genero berdintasuna*
- 17 Zir(r)ika** S.O.S.
- 17 Puntua** Tere Guenetxea *Danteskoa*



## Pil-pilean herri komunikabidea

Aldizkaria **ASKOREN ARTEAN** egiten dugu. Bidali zure iritzia, informazioa edo proposamenak: [aldizkaria@pilpilean.eus](mailto:aldizkaria@pilpilean.eus) • 605 706 086

### Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaldunon Elkarte  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

Telefonoa 943 75 13 04

### Erredakzioa

Ubane Madera  
[ubane@pilpilean.eus](mailto:ubane@pilpilean.eus)

Egoitz Unamuno 605 706 086

[egoitz@pilpilean.eus](mailto:egoitz@pilpilean.eus)

### Publizitatea

[publizitatea@pilpilean.eus](mailto:publizitatea@pilpilean.eus)

**Diseinua** Goiena,

Oier Larreategi (moldaketak)

**Maketazioa** Oier Larreategi

**Zuzentzailea** Leire Ginea

**Inprimategia** Gertu Koop.

**Banaketa** Pil-pilean Ekoizpena

**Lege Gordailua:** SS-537-2000

**Tirada:** 2.100 ale

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Abundia



**SORALUZeko  
UDALA**

# Utopia



Eguzkiñe  
Aldazabal

Eduardo Galeanok proposatutako ariketa egitera noakizue...

Zer moduz deliratzten baldin badugu momentu batez, beste mundu bat imajinatzeko?

Mundu horretako herri honetan ez da kutsaduraz hildako arrainik aurkitzen ibaian. Arrainak zahartzearen zahartzez hiltzen dira, azken saltoa emanda, pozik.

Autoak oinezkoen beldur dira. Mugak eta errepeideak erre ditugu, eta bideak dauzkagu, putzuetan salto egiteko, sokasaltoan jolasteko, nonahi eseri eta hostoak nola erortzen diren begira aspertzeko, lasai.

**“Haien lekuan ireki zituzten “egoitza berriak”, non amona-aitona jakintsuak bizi diren bertan, aske leihoak irekitzeko, aske nahi dutena nahi dutenean esateko, egiteko, jateko.”**

Herri horretako emakume-gizonek lan egiten dute bizitzeko, ez dira bizi lan egiteko, eta ordainetan, pentsio duinak dituzte. Lasaitasunez janzen dira goizero eta harrotasunez biluzten gauero. Etxeko berogailua pizteko beldurrik ez dute inoiz sentitu, ezta ispiluaurrean euren gorputz zimurtua ikusteko lotsarik ere, zimurrak baitira biziaren oroigarri samurrak. Zahartzaroa da bizitzako etaparik zapoetsuena. Izen-ematerik ez zegoelako, “zaharren egoitzako” ateak aspaldi itxi zituzten. Haien lekuan ireki zituzten “egoitza berriak”, non amona-aitona jakintsuak bizi diren bertan, aske leihoak irekitzeko, aske nahi dutena nahi

dutenean esateko, egiteko, jateko. Astean behin, herriko plazan euren hitzaldiak entzun daitezke, bizitza-kaxak, entzuleontzat esperientziar apaindutako opariak.

Supermerkatuan ez dago preziorik arrautzen kaxan, ezta kontserbatetan ere. Aspaldi ikasi genuen janaria ama-naturaren tititik hartzen dugun esnea dela, mahatsondoaren kimuetan ez dela inoiz etiketarik hazten. Denbora da herritarrek gauzak baloratzeko erabiltzen duten magnitudea. Artilezko jertse batek, adibidez, 23 ordu eta 14 minutu balio du.

Bai, aldatu egin dira etiketatze-sistemak. Mediku eta psikologoek adimen urritasunaren etiketa balorerik gabe bizi direnei jartzen die, maitatzen ez dakitenei, politikari lapurrei.

Zoologikoan mundu guztitik ekarritako pertsona basatiak ikus daitezke bakarrik: emakumeak gutxietsi dituztenak, animaliak inolako beharrik gabe hil dituztenak.

Ez dago aukeratu gabeko bakardaderik, ez minik, ez maiteminak hautsitako bihotzik, eta are gutxiago minbizirik.

Erraustegiak errauts bihurtu dira, ez dago hotel klandestino bihurtutako banketxerik, ez eta produktu ez ekologikorik.

Eta galdetzen diot nire buruari... zertarako balio du utopiak? Eta Galeanok erantzun: “utopia horizontean dago, beraz, badakit ez dudala inoiz neureganatuko; nik 10 pauso ematen baditut, hark ere 10 pauso ematen ditu, gehiago urrunduz... beraz, zertarako balio du utopiak? Ba ibiltzeko...”

# Iurdana Laskurain

TESTUA: **UBANE MADERA** ARGAZKIA: **FERNAN OREGI**

Iurdana Laskurain (Soraluze, 1980) da duela 17 urte Txurruka jatetxeko sukaldaria, Donostiako sukaldaritzako eskolan goi-mailako ikasketak egin zituen hiru urtez, nahiz eta sukaldari sena umetatik datorrion. Senarra ere sukaldaria du, Julen Aranburu donostiarra.

## Zenbat sukaldari ditu Txurrukak?

Sei. Astegunetan hiru eta asteburuetan bost: gozogile bat eta lau sukaldari. Neuk eramaten ditut jatetxeko kontuak, eta sukaldari-arduraduna naiz. Gurekin batera daude lau zerbitzari (astegunetan bi eta asteburuetan lau, eta beste zerbitzari bat ontziak garbitzeko).

## Ofizioa afizio izatea komeni da zuen kasuan, ala?

Gure ikasgelan 20-edo geunden. Eskolatik irtetean denok joan ginen jatetxeren batera, baina erdiak baino gehiagok laga egin zuten: gaztea zarenan gaztea zarelako, eta, familia duzunean, oso gaitza delako kontziliazioa (baldin eta bikoteak ez badu ostalaritzan lan egiten)... Hala ere, oso lanbide polita da, asko gustatzen zait, bestela ez nioke eutsiko. Gainera, ohituta nago asteburuetan lan egiten. Edozein modutan, ezagutu dut sukaldari bat Txurrukane lanean egon eta gero, tailer batera joan zena lanera, eta ez zuena han aguantatu. Kontua da ohitzea, jendeak jai duenean norberak lan egin behar duelako.

## Egunerokoaz aparte, bestela ere, sukaldaritzan buruan?

Oso modan dago eta saio ugari daude sukaldaritzari buruzkoak, ikusten ditugu. Sukaldaritzan oso bizkor doa. Ni gehiago zentratzen naiz jatetxea eramaten; besteak joaten dira batera eta bestera, ikastaroetara... Ferran Adriaren liburuak, esaterako, oso gustuko ditugu, harekin beti ari zara ikasten... bera eta Arzak oso-osoa onak dira, baina oso zaila da erabiltzen dituzten produktuak gurean erabiltzea, laborategiak muntatzen dituzte... Jaietako zein Gabonetako menuak aprobetxatzen ditut gauza berriak ipintzeko, baina hona datozen bezero askok gauza "arraroak" ez dituzte gustuko.

## Noizbehinka plater berriak aurkezten dituzue...

Oso aspergarria da plater berdinak egiten jardutea. Sasoian sasoiako produktuak erabiltzen ahalegintzen gara eta plater berriak ateratzen ditugu, urtean pare bat menu desberdin egiten ditugu. Hala ere, jendeak segitzen du babak eskatzen, bildotsa burruntzian... Kroketa ez ditut sekula kenduko, eta ezingo ditut kendu, ezta aste barruko potajeak ere! Jendea ostegunetan babak jatera dator. 40 urte pasa daramagu bigarren platerak aldatzen, baina lehenak ez. Horregatik, sartu dut 18 euroko menua aukeran; hala ere, batzuek pentsatu dute potajeen menua, betikoa, kendu egin dugula; eta hori ez

dugu sekula kenduko. Egin duguna da berria ipini eta 18 euroko horretan gauza berriak sartu.

Bestalde, asteburuko menuan ere urtero sartzen ditugu bi plater berezi. Aurten, baina, txapiroak arrozarekin tipula saltsan ez dugu kendu, jendea izugarri gustatu zaiolako. Era berean, orain asteburuko menuan ipini dugu eguneko arraina, zehaztu barik zein, ipini ahal izateko sasoiaren sasoi arraina.

## Zeintzuk dira Txurrukako menuan urte gehien daramatzaten platerak?

Kroketa kenduta (amamak zabaldu zuenetik errezeta berbera da), Txurrukara etorri nintzenean, hasieran, egin nuen plateretako bat izan zen esparragoak arrautza-irinetan pasatuta gari-zainzurien saltsarekin eta onddoekin. Hori da gehien saltzen dena.

## Zuk zer duzu gustuko?

Ahalegintzen naiz gauza desberdinak probatzen: atun gorriarekin eta jengibrearekin egindako tatakia...

## Sukaldetik zer gustatzen zaizu gehien, zer gutxien?

Sukaldea gustatzen zait jendearekin lanean zabiltzalako, ez zarelako geldi egoten... txarrena da zerbitzu handi horretako estresa, eguerdiko eta gaueko bi ordu horiek. Egin ahalko banu jatetxe batean egunean 20 laguni jaten eman...

## Zenbat laguni ematen diezue jaten?

Astean, egun batean 30 egon daitezke eta hurrengoan 60. Eta asteburuan 120 bat, zerbitzuko.

## Irteten zara bezeroarekin berba egitera?

Zerbitzuero. Zerbitzariari laguntzera, menuarekin zalantzaren bat baldin badago zalantza argitzera... Edo alergikoren bat badator, eta nahiz eta karta badugun, nahiago dut bezeroei zuenean galdetu. Kexuren bat baldin badago ere ateratzen naiz.

## Kexuak egoten dira, ala?

Bai. Nahiz eta nik ez dudan ezer bidaltzen txarra baldin badago. Akaso ez zaio bezeroari gustatu, baina txarra baldin badago, ez dut bidaltzen. Hala ere, egoten dira, bai. Adibidez, gorabehera handia dago gatzarekin. Ze jende asko dabil gatz kentzen. Eta batzuek gatzik gabe dago eta beste batzuek oso gazi.

## Politikariren bat zein beste ikusi izan dituzte hemen...

Bai, hainbat alderdi politikotakoak etorri izan dira, ezagunak. Ez diet aparteko inportantziarik ematen. Baina, bueno, esan daiteke lehendakari bat baino gehiago egon izan dela hemen.


## Zuk zer gomendatuko zenuke jatea Txurrukane?

Sasoi edozein plater berri, horiek jatea merezi du. Eta arrainek eta okelek parrillan toke berezia hartzen dute.



“Txurrukan jateko gomendatuko nuke sasoiko edozein plater berri; eta arrainek eta okelek parrillan toke berezia hartzen dute”

IURDANA LASKURAIN



## Estaziñotik abiatu da jolasaren tren!

ARGAZKIA: UBANE MADERA

TESTUA: JOLASAN ESTAZIÑUAN LAN-TALDIA

Dagoeneko haurrek ongi ezagutzen dute parke berria eta eguraldiak utzi dienean, behintzat, topera aprobetxatu dute! Azken finean, beraien nahi eta beharrei erantzungo zien parkea sortzeko ahalegina egin da eta badirudi emaitza ona izan dela.

Hala ere, azken emaitzaz harago, ezin ahaztu hona heltzeko egin den ibilbidea, eta, beraz, esan beharra dago, Herriko Hezkuntza Proiektuaren (Herrixak Hezi) barruan kokatzen den Haurren Herrixari Ekin egitasmoaren baitan antolatutako parte hartze prozesuaren fruitua dela estaziñoko parke berria.

Prozesu honetan, Hezkuntza Proiektuaren oinarrian dauden zenbait balio lehenetsi dira, hala nola, haurren parte hartzea eta autonomia, jolasaren balio hezitzailea, sormena, iraunkortasuna eta abar.

Talde eragileak eskerrak eman nahi dizkie prozesuan parte hartu duten herritar guztiei. Denon artean parke zoragarri bat daukagu herrian eta orain berau zaintzea eta gozatzea tokatzen zaigu. Aurrera!







# Pozoituta hil ziren arrainak



Ibai bazterrean pilatu ziren akabatutako arrainak. Argazkia: Alberto Arizaga

Egunotan bidaliko dituzte analizatzera Sorluzen, Deba ibaian otsailaren 12an akabatu ziren arrainen mostrak. Baita ere zapatuan, otsailaren 17an akabatu zen ubarroia ere. Animaliak eta gai toxikoak aztertzen dituen laborategi espezializatu batek egingo ditu analisiak, azken batean ondorioztatzeko ea arrainak eta hegaztia Deba ibaira isuritako zianuroak akabatu zituen.

## Zianuro isurketa

Edozein modutan, dagoeneko argi dago otsailaren 12an zianuro isurketa izan zela Deba ibaian. Hala ondorioztatu dute Gipuzkoako Foru Aldundiko Arrantza eta Ehiza sailak egindako analisiek. Diputazioak jakinarazitakoaren arabera, Fraisoron dituen laborategian aztertu zituzten egunean bertan Sorluzen eta ibaian gora bost puntutan hartutako uren laginak. 17:00ak aldera abisatu zieten ehunka arrain hilda azaldu zirela ibaian, eta segituan bertaratu ziren basozainak eta teknikariak, uraren laginak jasotzera. Emandako xehetasunen arabera, ibaia arakutzen ibili ziren ea ze puntutan hasi ziren arrainak hilda azaltzen, jakiteko nondik eta nola gertatu zen isurketa.

Hainbat enpresetan erabiltzen den produktua da zianuroa:

industrian, meatzaritzan, galbanoplastian, elektro-deposizioan... Haren erabilera oso araututa dago, kontuan izanda zianuroa pozoia dela, eta, beraz, oso toxikoa, heriotza eragiterainokoa. Horregatik guztiarengatik aditu gehienek uste dute isurketa istripuz gertatu zela. Edozein modutan, ikerketa zabalik dago oraindik. Uraren Euskal Agentziatik esandakoaren arabera, bertako teknikariak “inguruko enpresa guztietan dabilta inspektzioak egiten, Sorluzen hasita ibaian gora”.

## Ikerketa zabalik

Bestalde, Ertzaintza ere badabil isurketa ikertzen, baina atzo (otsailaren 22) oraindik ere ikerketak zabalik segitzen zuen. Hori bai, isurketa zianuroa izan zela jakiteak asko erraztu egin dezake hura nondik isuri zen argitzea, enpresa batzuk bakarrik erabiltzen dute-eta zianuroa euren jardunean.

Istripua izanda ere, isurketa egin duen enpresari isuna ezarriko diote. Hori bai, desberdina izango da isurketaren arrazoien edo jatorriaren arabera. Adibidez, isuna gogorragoa izango da isurketa gertatu bada enpresak azpiegiturak egoera txarrean izatearren; edo pertsona baten akatsa izan bada.

## Hirukurutzetako biribilgunean, obra gehiago

Hirukurutzetako errebueltan eraikitzen dabilten biribilgunean obra gehigarria egin behar dute. Bertako pareta egonkortzeko helburuarekin aldaketak egin dituzte proiektuan. Hori horrela, obra beste sei astez luzatuko da (otsailean zen bukatzekoa), eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 72.600 euro gehiago inbertituko ditu bertan.

## Zuzendaritza berri du Itxaropena elkarteak

105 bazkidek parte hartu zuen Itxaropena Erretiratuen Elkartearen Zuzendaritza osatuko duten lau kide berriak aukeratzeko. Honakoak izan ziren bozketaren emaitzak: Teogenes Ruizek, 98 boto eskuratu zituen; Marcos Arizagak 93 boto; Maria Jesus Arribasek 85 boto eta Maria Luisa Cidek 65 boto. Hori horrela, bada, Maria Luisa Gantxegi presidentearekin, Elena Vega idazkariarekin, Iñaki Quintanilla diruzainarekin eta Sergio Zabala bokalarekin batera izango dira lau lagun berriak zuzendaritzako kide. Bakoitza bi urteko epealdirako sartu da.

Batzar orokorra egin zuten otsailaren 13an. Eta zuzendaritza berritzeaz batera, jakinarazi zuten 2018rako duten aurrekontua 19.102 eurokoa dela. Irteerak, ekintza kulturalak eta bestelakoak antolatzeko baliatzen dute kopuru hori, hain zuzen ere.



# Mauri Muro: “1.080 € behar dira duintasunez bizitzeko”



Mauri Muro Pili-pilean elkartearen egoitzaren balkoian.

Mauri Muro pentsiodun soraluzetarra “oso haserre” dago pentsioen igoera dela-eta. Azpimarratu nahi izan du berak moduan beste pentsiodun askok astero plazaratzen diharduten haserre hau ez dela oraingoa. **Zer gertatu da orain haserrea publiko egiteko?**

Sare sozialek dinamizatu egin dute pentsiodunek bazuten haserrea, gobernu espainolaren %0,25eko igoeraren jakinarazpena abiapuntu hartuta. Eta, Euskal Herriko hainbat kolektibok zein elkartek babestu egin dituzte protesta horiek.

**Salatu duzue erosteko ahalmen handia galdu duzuela urteotan...**

Bai. Azken 9-10 urteotan erosteko ahalmenari dagokionez %9,75 galdu dugu. Hala ere, Fatima Bañez ministroak tontotzat hartzen gaitu eta dio oraingo %0,25eko igoerarekin ez dugula erosteko ahalmenik galdu, baizik eta 0,02 euro irabazi, lotsagarria da! Begira, datu bat: ETBn esan berri dute Euskal Autonomia Erkidegoko bizilagunen %20ak bizi duela pobrezia energetikoa, ezin diola aurre egin ezta argindarraren igoeraren gastuei ere. Emakume askok 800 eurotik beherako pentsioak dituzte.

**Zuek, berriz, uste duzue pentsio duina dela 1.080 eurokoa, ala?**

Bai. Europako karta sozialak esaten du duintasunez bizi ahal izateko gutxieneko pentsioa hori dela. **Horren alde lehenago ere mobilizatu izan zarete, ezta?** 75.000 sinadura batu genituen Gasteizko eta Iruñeko parlamentuetara bidaltzeko. Soraluzen, 373 sinadura. Eskatzen genuen 1.080 euroko pentsio duina ez zutenendako konpentsazioa. Baina eskaerak ez zuen aurrera egin. Eta, 2014an errezeten koordainketa kentzea ere eskatu genuen, baina horrek ere ez zuen aurrera egin. **Krisia ipini dute pentsioak gehiago ez igotzeko arrazoi modura...**

Ez digu balio. Obra izugarritzkoak egiten ari dira, adibidez. Gainera min handia ematen du jakiteak, adibidez, BBVAko presidentek %17 igo duela soldata: 5 milioi euro neto kobratu ditu; edo Ligako presidente Tebasek 1,2 milioi euro kobratu dituela... Gogoan izan 1995etik 2010era 40.000 milioi euro ateratu dituzte pentsioen erabiltzatik, beste gauza batzuetan erabiltzeko. Horiek aitzakiak besterik ez dira. Eta jarraituko dugu aldarrikatzen KPI kontuan har dezatela pentsioen igoera erabakitzerako orduan.

## Mapa Moreari ekarpenak egiteko epea

Otsailaren 28ra arte egin dakizkioke ekarpenak Mapa Moreari. Udalerrria genero ikuspegitik aztertu eta bertako espazio publikoak zein azpiegiturak herritar guztien eskura egongo direla bermatzeko helburuarekin, bestela esanda, guztion autonomia ahalbidezeko helburuarekin dihardu Soraluzeko Udaleko Berdintasun Batzordeak Mapa Morea prestatzen; iazko udazkenean hasi ziren lanean. Parte-hartze prozesua abiarazi zuten eta bertatik eratorritako dokumentua herritarren eskura dago.

Sakona da dokumentuak erakusten duen azterketa; ekimenaren nondik norakoak eta helburuak azaltzeaz batera, besteak beste, udalerriko hiru esparru aztertu dituzte: Plaza Zaharra, kiroldegia eta Estaziño inguruak, irisgarritasunaren, segurtasunaren, funtzionalitatearen... ikuspegitik. Horiekin batera, udalerriko bestelako pasabideren, kaleren eta esparruren gaineko diagnostia ere egin dute, apur bat arinagoa, denbora faltarengatik.

### Ekarpenetarako galdetegia

Edozein moduan, orain landu duten txostena herritarren ekarpenekin osatzea nahi du Udalak, eta horretara animatu nahi ditu. Gainera, herritarren parte-hartzea errazteko galdetegia prestatu du. Ekarpenak Udaletzeko harrera bulegoan aurkez daitezke, [udala@soraluze.eus](mailto:udala@soraluze.eus) helbidera bidalita edo Soraluzeko Udalaren webgunearen bitartez.

# Hamabi komertzio eta lau lantegik ateak itxi dituzte azken bi urteotan



Soraluzeko ikuspegia airetik. Fernan Oregi.

Komertzio eta lantegi kopuruak behera egiten jarraitzen du herrian. Hala adierazten dute Pil-pilean herri komunikabieak eguneratu berri duen inbentarioaren datuek.

2016 eta 2018 urte bitartean, herrian 15 eragile ekonomikok itxi dituzte ateak; horietatik 12,

zerbitzuen sektorekoak izan dira (komertzioak, gremioak eta garraioak), eta, 3, industriaren sektorekoak (lantegiak). Bestalde, jarduera ekonomikoari ekin dioten eragileak 4 izan dira, zerbitzuen sektorekoak guztiak. Eskualdatu diren jarduera ekonomikoak berriz,

4 izan dira, zerbitzu eta gremioen sektorekoak.

Datuek erakusten dutenaren arabera, duela hamarkada batzuek Soraluzen hasitako gainbehera ekonomikoak ez du etenik.

## 2016-2018 DATUAK

### Itxi (15)

- **Komertzioak (7):** Frutadenda (2), gozotegi (1), taberna (1), ileapaindegi (1), mertzeria (1) eta banketxe (1).
- **Gremioak (3):** Igeltseritza zerbitzuak (2), galdaragintza (1)
- **Garraioak (2):** Autobus zerbitzuak (2)

### Lantegiak (3)

### Eskualdatu (4)

- Harategi(1)
- Urdaitegi (1)
- Aroztegi (1)
- Taxi zerbitzua (1)

### Zabaldtu (4)

- Mertzeria (1)
- Ileapaindegi (1)
- Osasun zerbitzua (1)
- Serigrafia zerbitzua (1)

## M8-an aldarrikapena eta jaia eskutik

Korner Moreak eta Soraluzeko Udalak Emakume Langilearen Nazioarteko Egunerako hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Martxoaren 3rako egin dute lehen hitzordua, Debabarreneko Ikasten elkarteko La Novena taldearen *Pareja abierto* eta *La mujer sola* (Dario Fo) antzerki emanaldiekin, 20:00etan, antzokian.

### Martxoaren 8an bertan

Pintxo pote aldarrikatzailerako hitzordua egin dute, berriz, Martxoaren 8an bertan, Plaza Berrian, 19:00etan. Eta , 21:00etan,

Mike Mills-en *Mujeres del siglo XX* filma izango da antzokian. Barikuan, berriz, Histeria kolektiboa taldearen *Inundación* antzezlanaren taularatuko dute, 22:15ean, hori ere antzokian. Eta ondoren, zapatuan, *Nazioarteko III: Kuleruak Buruan* eguna antolatu dute, bi ekitaldi oinarri: 13:00etan, Gaztelupe tabernan hasita poteoa eta 15:00etan, bertso bazkaria, hori ere Gaztelupen. Bertaratzeko txartelak datorren astetik ipiniko dituzte salgai. Horrekin batera, Korner Moreak iragarri du Martxoaren 8rako deituta dagoen

greba feministaren gaineko materiala joango direla zabaltzen herrian.

### Greba edo lanuzteak

Greba feministari dagokionez, *Emakumeok planto* leloarekin, Euskal Herriko Mugimendu Feministak salatu nahi du “eredu ekonomiko honek zapaldu” egiten dituela emakumeak; “indarkeria matxistak jipoitu” egiten dituela eta “kultura patriarkalak baztertu, objektu bihurtu eta estereotipatu” egiten dituela. Greba edo lanuzteak egitea proposatzen dute.

# 'Plaentxia.eus'-ek gero eta bisita gehiago

The screenshot shows the Plaentxia.eus website interface. At the top, there's a navigation bar with 'GUREAN', 'BERRIKUNTZA', 'BERRIAK', 'BERRITOKIA', and 'GUREA'. The main content area features several articles:

- Beste podium bat, Ander de Luisendako**: An article about a podium ceremony for Ander de Luisendako, with a photo of a group of people on a stage.
- Dela berri, Salber Zabalaik sartuko**: An article about Salber Zabalaik's participation in the 'Dela' festival.
- Xabier Zabalaik bost hautagaizta ditu musikari independenteen sarjitarako**: An article about Xabier Zabalaik's nomination for the independent musicians' award.
- Lau kide berri ditu Itzaropena elkarteko zuzendaritzak**: An article about the Itzaropena association's new board members.

On the right sidebar, there are sections for 'gurean.eus' and 'BALARAN ALBISTE' (Basque News), which includes a list of news items with dates and brief descriptions.

Soraluzeko webgunearen azala, oraingo asteko martitzenean.

Iaz ere gora egin zuen *Plaentxia.eus*-en bisita kopuruak. Urte osoan, 135.085 sesio izan zituen, 2016an baino %14 gehiago; egunean, batzaz beste, 400 bisita inguru. Pil-pilean herri komunikabideko erredakzio kideen ustez, datuak "oso onak" dira, eta erakusten dute "urtetik urtera gero eta gehiago direla herriko kontuek informatzeko *Plaentxia.eus* erabiltzen dutenak".

## Herritarren ekarpena

"Poztekoa eta eskertzekoa da momentu oro herriaren gaineko kontuen berri emateko egiten dugun ahaleginak halako erantzuna jasotzea", adierazi dute. Kazetariak eskertu nahi dute komunitateko kideek eta bereziki herritarrek, webguneari eta komunikabideari egiten dioten ekarpena: "Etengabe bidaltzen dizkigute abisua, argazkiak, informazioa, iritziak, zorion-agurrak... eta horrek sekulako indarra ematen dio komunikabideari. Herritarren kolaborazioei esker lortzen dugu herrian euskarazko komunikabide indartsua izatea eta herritar askok herriko albisteak euskaraz irakurtzea".

## Berrikuntzak

Aurten hainbat berrikuntza ezarriko dituzte *Plaentxia.eus*-en, eta baita Pil-pilean aldiakarian ere.

Webguneari dagokionez, batetik bilatzaile berria eta komunitatean informazioa sartzeko sistema berria ezarri dira, eta edukiaren arloan, albisteak ikus-entzunezkoen bitartez lantzeko joera indartu nahi dute.

Aldizkariari dagokionez, eduki-atal berri bat gehitu dute "Gure artistak" izenekoa, eta, laster, maketa ere berrituko dute. Gainera, bi medioetan, tarte gehiago eman nahi diete iritziei eta gazteen intereseko izan daitezkeen gaiak.

Irrati bidezko emanaldietan ez da aldaketarik izango. Martitzenero, 12:55ean, Arrate Irratian albistegia eskaintzen jarraituko du Ubane Maderak eta hiru hilean behin, Egoitz Unamunok herriko gai bat landuko du Euskadiko Irratiko *Tokikom gauzak* albistegian (astelehenetan, 18:30etik aurrera).

## Kazetari aldaketa

Iazko urritik, Ubane Madera kazetaria da Pil-pilean herri komunikabideko erredaktore nagusia, Egoitz Unamunori

erreleboa hartuta. Maderak esperientzia luzea du tokiko medioen esparruan, izan ere, Goiena komunikabidearen astekariko erredaktore buru izan da urte luzez.

## Ikusienak 2017an

### Webgunearen bisita gehien izan zituzten 10 albisteak:

- 3.107 Mozorro lehiaketa
- 2.376 Eloi Uriarteren etorrera
- 1.513 Hilotza ibaian
- 1.246 Herriko jaiak
- 1.060 Gaztañerre Azoka
- 1.056 Mandazainak Andaluziarantz
- 1.032 San Roke Txiki eguna
- 844 Soraren urteurrena
- 782 San Andresko Jaiak
- 750 Aspanogiren aldeko jaiak

### Ikustaldi gehien izan dituzten 5 bideoak:

- 2.942 Ongi etorria Eloi Uriarteri
- 1.275 Autopistako istripua
- 1.027 Hilotza ibaian
- 771 Mandazainak Andaluziarantz
- 717 Sevillanak jubilatuetan



# Ekainean egin nahi dute Eskola-bidearen proba pilotua, neska-mutikoen taldeekin

Umeak eskolara oinez eta seguru joatea ahalbidetu nahi duen egitasmoa aurkeztu dute: Eskola-bidea. Helburua da lehen hezkuntzako neska-mutikoei eskaintzea eskolara bakarrik joateko aukera, taldean, ibilbide seguruetatik eta laguntzarekin. Izan ere, neska-mutikoen autonomia eta parte-hartzea oinarri dituen egitasmoa da Eskola-bidea. Bost eragile dabilta berau lantzen: Atxolin Guraso Elkarte, Plaentxi Herri Eskola, Hezkuntza Proiektua, Sorluzeko Udala eta Kukumixo.

## Lehen fasea abiarazita

B fasean garatuko da egitasmoa: diagnostiko parte-hartzailea, diseinua eta proba pilotua; eta ezarpena

Lehen fasea abiarazita dago. Dagoeneko eskolan hainbat saio egin dituzte eskolara joateko dauden ibilbideen gainean umeek duten pertzepzioa zein den jakiteko. Bestela esanda, mapeoa egiten dabilta orain. Lehen aurkezpen



Eskola Bidea egitasmoa martitzen iluntzean aurkeztu zuten, antzokian.

publikoa ere egin zuten; orduan, besteak beste, zalantza batzuk partekatu zituzten, esaterako, umeak bakarrik edo guraso-begiraleek lagunduta joango diren eskolara.

Lehen fasean aurrera eginez, sor daitezkeen zalantzak, kezak, beldurrak... argitze aldera beste saio berezi bat antolatuko dute, apirila-

maiatza inguruan. Apirilean, eskolara ailegatzeko ibilbide proposamenak ere egingo dituzte, eta helburua da ekainean proba pilotua egitea umeen taldeekin.

Izan ere, bigarren fasea datorren ikasturtean gauzatu nahi da: egitasmoa martxan jartzea, edo martxan jartzeko proposamena, behintzat.

# Carlos de Cos eta Fernan Oregi, irabazle

42 bilduma aurkeztu zituzten Kontrargiren XXIX. Argazki rallyra. Bosna gai emanda, guztira, 210 argazkiren artean aukeratu behar zan dituzte lau onenak. Gaiak izan ziren honako hauek: Komunikazioa, Desoreka, Balkoia, Ilusioa eta Zaporea.

## Sari banaketa

Irabazleek torloju erraldoi bana jaso zuten garaikur modura:

- **Herriko saria:** Fernan Oregi
- **1. Saria:** Carlos de Cos Azkona
- **2. Saria:** Javier Lopez (Barakaldo)
- **3. Saria:** Jose Luis Rodriguez (Zalla)



Oregi, De Cos, Aldazabal eta Lopez.

Egilea: Garbiñe Ubeda (Aiarri)

Soluzioak:

plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak



### Gogoa non...


Jarroian zer datorren asmatzen baduzu, esatera zahar ezogun bat esatuko duzu.

- Gogoa non, begiak zero eta bihurtza edonon.
- Gogoa non, zu beti bertan.
- Gogoa non, legunik ezin aurkitu inon.
- Gogoa non, normalki Amoreten.
- Gogoa non, paze beti da on.
- Gogoa non, lanak her kerpon.
- Gogoa non, zangoa hon.



### PUZZLEA

Zein da puzzlea osatzeko behar dugun pieza?



### ESTROPEZUA

Estropezu egin duen emakumeak emakume apartu da, eta horrez gain, bi gizona desagertu zaitzite eta berri bat agertu. Zaitzate?

### ZINEMAN

Antze denez, zinema honetan ematen ari diren filme ez da oski interesgarria, inork ez baitie begintzen... Baina, tira. Begi-bistakoena olde bahers utzite, zenbat ezberdintasun ikusten dituzue bi irudi hauen artean, 7, 9, 17...? Zenbat?






# 2018ko aratustekak

ARGAZKIAK: PLAENTXIA.EUS TESTUA: UBANE MADERA

Eskolan irudikatutako Euskal Aratosteekin hasi eta Aratuste martitzenarekin bukatu ziren Euskal Herriko jairik paganoenak. Bien bitartean, zapatuak erakarri zituen herritar eta mozorro gehien, lehiaketa ere tarteko. Mozorro benetan landuak egin zituzten, itsasoa inspirazio iturri hartuta. Eta zapatu bazkal-aurreko lantua eta gaueko parranda izan ziren jendetsuenak. Lehiaketari dagokionez, 15 kuadrilla izan ziren lehian, eta irabazleak honako hirurak: *Soraluzeko estropadak*, *Ezoziko Ama Ternuan* eta *Titanic-en hondoratzea*. Martitzenari begiratuta, berriz, kiroldegia gainezka izan zen neska-mutikoz osatutako sei talderen koreografia erakustaldia ikusteko, iaz baino herritar gehiago bertaratu ziren.







## Eskerronez taupaka

Maria Luisa, ahizpa gurea. Zure bitartez nahi nuke gure eskerrona adieraztea bidali diguzuen dirua batzen lagundu duen pertsona bakoitzari eta Soralezko herri osoari. Dirua zuk ezagutzen duzun misio eder horretara bideratu dugu. Tira, beharbada, dagoeneko, ez zenuke ezagutuko, izan ere, egunetik egunera ari baita hazten.

Ondo dakizun moduan, anbulategi hori kongregazioak kudeatzen du, eta La Liman dago. Geroz eta pertsona gehiagok jotzen dute bertara, batez ere, umeek eta adinekoek. Urteko sasoi honetan ugaritu egiten dira hemen (Haitin) hotzeri edo gaixotasun tropikal birikoek eragindako arazoak, eltxoen erruz. Izan ere, desagaeak falta dira herrialde osoan, eta euriteek ekarritako urak bideratu barik gelditzen direnez, eltxoak ugaltu egiten dira ur usteletan.

Anbulategian era guztietako gaixotasunak artatzen ditugu eta landa eremuan dagoen zerbitzu bakarra denez, jendeak nahiago du bertara joatea hiriko erietxeetara baino.

Eskerrik asko, berriz, Jainkoak behartsuen artean zabaltzen duen miseriardiaren eramale izateko aukera eman diguzuelako. Guk

badakigu laguntza ekonomikoa askoren ahalegin eta sakrifizioari esker datorrela; Jesusek gogokoan dituen horiekiko elkartasunezko gizatasunaren fruitua. Ebanjelioak esaten digun moduan, behartsuari egiten dioguna berari egiten diogu, eta Jaunaren begiek ikusten dituzte miseriak keinu hauek.

Eskerronez taupaka dugu bihotza. Jainkoak bedeinka ditzala zuotako bakoitzaren bizia eta bakoitzak bizitzan aurrera daramatzazuen misioak. Besarkadak.

### Karitatearen Mesedeetako Ahizpak

## Plan Estrategikoa

Udaletxean badira hainbat asmo lozorroan daudenak edo behintzat ez dakidanak zertan diren gaur egun. Ez dut esango egungo Udalak ez duenik asmorik. Esan nahi dudana da, oso gutxi eman dela aditzera, Aztiker aholku enpresak herriari beste marxta bat emateko asmoz egin zuen diagnosiaz.

Lehenago, baztar irekien bidez ezagutu genituen zeintzuk ziren herrian zeuden premiak eta aukera zegoen iritzia emateko lehentasunek nondik nora joan behar zuten. Orain, galdu egin da herritarren aurrean asmoak eztabaidatu eta lehentasunak markatzeko metodo zaharra, eta informazioa falta da.

Ez naiz inozoa izango esaten badut Udal honen osaketak ez duela zer ikusirik aurretik zegoenarekin. Edozeinek ikusten du portaera aldaketa nabarmena dela. Esango nuke, horizontaltasunean baino, Udal honen jarduna goitik beherako jardunean oinarritzen dela, eta ez legoke gaizki, baldin eta herritarrok parte hartu eta eztabaidatzeko aukera izango bagenu.

Bitartean, herrian badira talde ugari herriaren alde lanean dihardutenak. Badira ondare kulturala lantzen diardutenak, eta gazteekin aisialdi programak lantzen dituztenak, eta etorkinekin lanean dabilzanak, eta jubilatuen baldintzetaz arduratzen direnak, eta kirol eta hezkuntza arloetan lanean ari direnak... eta hainbat dira kontu sozialez arduratzen diren pertsonak.

Zergatik ez metatu indar guzti horiek eta amankomunean Plan Estrategiko baten alde lan egin?

Jokoa dago etorkizunean nolako Soraluzer dagoen dugu, eta hori soraluzetarrok erabaki behar dugu. Sinergiak bilatuz, elkarrekin lan eginez, beti izango dugu aukera gehiago helburuak lortu ahal izateko.

**Bittor Treviño**

[aldizkaria@pilpilean.eus](mailto:aldizkaria@pilpilean.eus)  
[helbidera bidali gutunak](#)

### KOMIKI TIRA

Tokikomek, tokiko komunikabideen bateraguneak, genero berdintasunaren inguruan gogoeta eragiteko sortu duen komiki-tira.



ZIR(R)IKA

S.O.S.



Egilea: P.G.



PUNTUA

Tere  
Guenetxea

## Danteskoa

Inork ez daki ezer segururik, oraindik ez da ezagutzen zein den isuriaren erruduna. Analisisiei esker jakin dugu zianuroa isuri zutela.

Ez du inork ezer esan, ez da inor mobilizatu, apenas dugun informaziorik, eta, beste behin, aho zapore mingotsa, ikusita zeinen gaizki babesten dugun gure ingurua. Izan ere, ikusi duguna danteskoa izan da: ehundaka arrain pozoiak akabatuta.

Natura zaindu eta defendatzearen garrantziaz jabetzeko sortu genuen Alkarrekinen baitan Mendiak eta Ibaiak lan-taldea, ibaiak herriaren bizitzan izan duen pisua ezagutarazteko.

Ez dugu bizi nahi ibaiari bizkarra emanda. Nahi dugu ibaiaz gozatzea eta hura errespetatzea, gure izatearen parte esanguratsu moduan. Ez dakit zerk bultza lezakeen norbait halako basakeria egitera, baina bere arduragabekeriak, diru-goseak edo dementziak, orbain odoltsua laga du ibaia berreskuratzeko prozesuan.

Nahi eta espero dugu ardura duten instituzioak implikatuko direla gertatu dena argitzeko eta behar diren neurriak ezartzeko, halakorik berriz gerta ez dadin.





Ekimenaren bultzatzaileetako batzuk Elkartegian.

## ERREPORTAJEA

# Soraluze, mugituz!

“Lehenagotik abian zeuden kirol jarduera batzuei berriak gehitu, antolatzaileen artean indarrak batu eta ekimen bateratua sortzearen ideia bururatu zitzaigun”. Horixe da *Soraluze, mugituz!* ekimenaren abiapuntua.

ARGAZKIAK: **UBANE MADERA, PLAENTXIA.EUS ETA FERNAN OREGI** TESTUA: **UBANE MADERA**

Ekimen horrek hainbat helburu ditu: kirola bultzatzea, batez ere, emakumeen eta gazteen artean; parekidetasuna; kirolzaletasuna; herriko elkarten arteko elkarlana; errespetua... (ondoko taulan daude guztiak). Eta horiek lortzeko edo garatzen laguntzeko, indarrak batu, guardasol beraren aterpean elkartu eta *Soraluze, mugituz!* izena baliatuta, bi hiletik behin herrian kirol jarduera bat antolatuko dute; lehenagotik egiten ziren batzuei hiru berri gehituta: martxoan, Frontenis Txapelketa Mistoa egingo dute (berria); maiatzean, Alejandro Rodríguez Memoriala herri-krosa (berria);

uztailean Iñaki Ruiz lasterketa; irailean, Marraskilo Tour mendi-martxa eta urrian, Soraluze Urban Traila (berria).

### **Bi hilean behin jarduera bat**

“Egutegi horrekin, kirolari dagokionez, maila onean ipiniko ginateke. Bi hilean behin zerbait izateak, eta hori guztia bateratzeak indarra emango dio batak besteari. Kirolarekiko zaletasun hori sortzen baduzu... asko da”, esplikatu dute antolatzaileek. Horien artean, izen batzuk aipatzearren, honakoak dabilta *Soraluze, mugituz!* ekimena sustatzen: Jose Luke eta Jokin Martinez,

atletismoan; Gorka eta Xabier Tardio eta Xabier Arribillaga mendi-taldean, David Borinaga, Amaia Ariznabarreta, Anartz Mujika eta Ainara Muga frontenisean; eta Koldo eta Urko Azkorbebeitia, Pablo Galarraga eta Javi Gonzalez Iñaki Ruiz lasterketan.

### Izen-emate ekonomikoak

Kirolarekiko zaletasuna bultzatu nahian, besteak beste, kirol jardueretan parte hartzeko izen-emate garestiena 15 eurokoa izango da. Ahaleginduko dira beste guztiak merkeagoak izaten. Eta ekimenak bateratzeari dagokionez zera azaldu dute: “Egitasmo bateratua egitearen arrazoietako bat da saiatzeko denak bateratzen, baliabideak elkarbanatzen eta gastuak murrizten”. Hori horrela, antolatutako jarduerak “nahiko ekonomikoak dira”, beste leku batzuetakoekin konparatuta. “Ez dago interes ekonomikorik atzean, gastuak ordaintzea da asmoa; gainera, nahi dugu herrikoia izatea, nahi duen guztiak parte hartzea”.

### Jarduera guztiak mistoak

Parekidetasuna edo emakumeen eta gizonezkoen arteko oreka bultzatzeko, berriz, kirol-jarduera guztiak mistoak izango dira. Beraz, “sari berdina egongo dira, neskendako zein mutilendako; berdintasuna dugu helburu eta ez dugu desberdintasunik egin nahi; sari berak ematea da egin genezakeen gutxienekoa”.

Bestalde, *Soraluze, mugituz!* ekimena kirolarekin lotura duten talde eragileek bultzatuko den arren, herriko bestelako elkarte batzuekin ere harremanetan dihardute: “Guraso elkartearekin, adibidez, gazteen artean kirol-jarduera bultzatzeko. Eurek egitasmo asko dituzte abian, hezkuntzatik, baina hezkuntza komunitarioa denez, eurekin harremanetan izango gara euren ideiak jasotzeko. Horrez gainera, kirolarekin, berdintasuneko eta ingurumeneko teknikariarekin koordinatzen ari gara. Eta Udalarekin ere bai, batzorde desberdinekin”, adierazi dute.

### Birziklapena

Bestalde, birziklatzeko beharra ere aintzat hartu dute: “Kirol jardueretan sortzen ditugun hondakinak berrerabiltzeko. Adibidez, 1.000 edalontzi pasa gastatu ziren goiz batean Marraskilo Tourren. Kontua da berrerabiltzea, gauzak partekatzea... Ingurumen teknikariarekin harremanetan jarriko gara, hondakinak murrizten joateko”.

### Denboran irauteko asmoarekin

Horiek horrela, denboran irauteko pentsatutako proiektua da *Soraluze, mugituz!*: “Nahi dugu hemendik 20 urtera, Memorial Atxarekin eta halako gauzeekin gertatutakoa ez gertatzea: belaunaldi bat egotea gauzak antolatzen, eta belaunaldi horrek antolatzeari lagatzen dionean hutsunea sortzea. Ez dugu etorkizunean halakorik gertatzerik nahi. Horretarako bateratzen gara. Memoria idatziko dugu. Eta lasterketa-helburu guztiei lotuta ekintzak zehaztuko ditugu, arduradunak... erregistroa egingo dugu eta zaletasuna sortzeaz gainera, etorkizunean erreleboa ematera datozen pertsonen lagako diegu esplikaturaz zer egin, zela egin...”, azpimarratu dute *Soraluze, mugituz!* ekimenaren bultzatzaileek.

### Helburuak

- Soraluzeko herritarren artean kirol-jarduera bultzatu bizimodu osasuntsuaren osagarri bezala.
- Soraluzeko hiri eta natura ingurumenen zaintza sustatu.
- Kirol-ekintzetan emakumeen eta gizonezkoen arteko parte hartzea orekatu.
- Gazteen artean kirolzaletasuna eta parte hartzea handitu.
- Herritarren artean jarduteko elkartasuna, elkarlana eta elkarren arteko errespetua sustatu.
- Herritarren parte hartzea bultzatu udalerraren eraldaketaren oinarrietako bat bezala.
- Soraluzeko hainbat elkareren arteko elkarlana sustatu.
- Soraluze inguruko herri eta eskualdeetan ezagutzera eman.
- Kirol-jarduerak sortzen dituzten hondakinak murriztu eta berauen kudeaketa hobetu, berrerabilera eta birziklapena sustatu.
- Natura eta ingurunearekiko errespetu eta begirunea bultzatu.
- Mendizaletasuna bultzatu.
- Herri-mailako kontsumoa sustatu.
- Kirol-jarduerari loturiko herri-mailako proiektu berritzaileak bultzatu eta ezagutzera eman.

# Lantaldeak



Ainara Muga, David Borinaga eta Amaia Ariznabarreta.

## Martxoaren 24an Frontenis Txapelketa Mistoa

"Astelehenero elkartzen gara jolasteko; txapelketen bila ibili gara eta ez dugu ezer topatu eta azkenean erabaki dugu guk antolatzea bat" esplikatu dute David Borinagak eta Amaia Ariznabarretak. Frontenis Txapelketa Mistoa martxoaren 24an jokatu da Sorluzeko kiroldegiko frontoian, 22 tantotara. Gehienez 20 minutuko partidua izango dira, goizean hasi eta bukatu arte. Artengo horia da baliatuko duten pilota-mota. Izena martxoaren 15a aurretik eman beharra dago, baldintza bakarra da 16 urte baino gehiago izatea. Hiru modu daude izena emateko: [kirola@soraluze.eus](mailto:kirola@soraluze.eus) helbidera idatzita; Arane kiroldegian edo 943 75 24 66 telefono zenbakira deituta. Bikoteko 10 euro ordaindu behar da izen-ematea. Eta asko jota 24 bikote lehiatu ahaliko da Sorluzeko Frontenis Txapelketa Mistoa. Sariak ere izango dira, lehen bi bikoteendako.



Bi lagun Marraskilo Tour mendi martxan.

## Irailaren 15ean Marraskilo Tour

Xabier Arribillagak eta Gorka eta Xabier Tardiok esplikatu duten moduan, 12. edizioa izango du aurten Sorluzeko mendi-martxa horrek. "06:00etan abiatzen

da Plaza Berritik. Eta orain dela bi urte ipini genuen beste irteera bat 08:00etan. Izan ere, askori kostatzen egiten zitzaion 06:00etan hasia eta ibilbide osoa egitea; hortaz, 08:00etan irteten direnak ibilbide motzagoa dute, haurrak gurasoekin-eta joaten dira. Ibilbide osoa 36 kilometro pasatxo dira, eta laburra 24 km-koa da. 36 kilometroko ibilbidean, Sorluzeri buelta osoa ematen zaio, ibaiaren bi aldeetatik. 24 km-koan, berriz, San Andres inguruan ibiltzen dira. 80-100 bat lagunek parte hartu izan du orain arte. Gehienak bertakoak, baina badira kanpotik etortzen direnak ere. Batzuk, adibidez, Irundik etortzen dira. Adinari begiratuta ere, denetik dago: 14-70 urte bitartekoak ibiltzen dira. Eta mutil gehiago dagoen arren, neskak ere egoten dira. Bestalde, Marraskilo Tourrak duen ezaugarri erakargarria bazkari herrikoa izaten da. Eguraldi ona bada Kalebarrenen egiten dugu, Plaza Berri inguruan, eta txarra tokatzen bada, Kontzejupean. Gainera, parte-hartzaile bakoitzari kamiseta ematen zaio opari, eta lau anoa ditu: txorizoa, salda, kafea, ardoa... denetik egoten da anoetan", diote.



Korrikalariak Iñaki Ruiz lasterketan.

## Uztailaren 8an Iñaki Ruiz lasterketa

7. Edizioa izango da aurtengoa, Koldo Azkorbeitiak esandako moduan: "2012an hasi ginen egiten, Iñakiren omenez, hura orduan hil zen; lasterketak korritzen ibiltzen zen eta bazuen ilusioa zerbait antolatzen hasteko, baina horrela tokatzen dira gauzak. 21 kilometroko lasterketa da eta 1.000 metroko desnibela du. Lasterketa herrikoa da. Ez dago sari ekonomikorik. Mistoa da, eta sari berak daude denentzako, nahi duenak parte har dezake. Helmugaratzeko denbora-muga zehaztuta dago, baina ia-ia oinez azkar egiteko astia ematen du. 100-120 bat lagunek parte hartzen du gutxi gorabehera. Euskal herritarrak dira gehienak, nahiz eta kanpotik ere etortzen de jendea, horietatik 20-30 bat lagun sorluzetarrak dira. San Andresko jaien barruan egiten denez, San Andresen hasi eta bukatzen da lasterketa, mendigainetik egiten da zirkuitua, eta inguru hura guztia ezagutzeko aukera



ematen du. Helmugaratzen diren Soraluzeko neskarendako zein mutilarendako sariak ere egoten dira. Orain arte ez da sekula apuntatu Soraluzeko neskarik baina ia, neska asko etorri ziren".



Jokin Martinez eta Jose Luke Estaziora bideko eskaileretan.

## Urriaren 7an Soraluze Urban Trail

Jokin Martinez eta Jose Lukek esplikatu dute berau lasterketa berria dela. "Soraluzeren ezaugarriak aprobeztatuko dituen lasterketa da, ia 11 km-koa, eskailerak igo behar dira, 800 bat guztira. Plaza Zaharreen hasi eta bertan bukatzen da, bukleak eginez. Soraluzen eskailerak ditugu Gabolats altotik hasita, Gabolats-Erregetxe-Estaziñoa-Elizburu-Galipot-Elizpe-Gipuzkoako Etorbidea-Santa Anatik frontoi arrosara... ibilbidea dago pentsatuta Plaza Zaharretik irtenda, aipatutako eskaileretatik gora egiteko, eta segun eta nondik zoazen, Ezozibidera-Gabolatseko zubira-Baltegiatarra-kiroldegira... hortik pasatzeko. Batetik, ibilbidean zehar Soraluzeko ezaugarriak uneoro dituzu aurrean: Baltegiatarra-kiroldegitik ikusten duzu ibaia, presa, eliza, Gila... Soraluzeko irudi ikonikoak. Eta bestetik, normalean ikusten ez diren beste irudi batzuk ere ikusiko dira: ja jendeak apenas erabiltzen ditu eskailera batzuk, eta gune ilun moduan geratu dira. Gu horiek erabiltzera goaz. Soraluzeren parte izan dira, eta jende guztiak erabili izan ditu urteetan. Aldarrikapen puntu batekin argia ipini nahi izan dugu eskailera horietan. Adibidez, ilundu diren eskailerak dira merkatu plazatik eskolarako bidean daudenak. Mantenu aldetik eskas daude, jendea ere ez ditu asko doaintzen, (txiza egiten du...); Gabolatsetik Loraldera doazenak... Parte hartzeko, berriz, parte hartzaile kopurua mugatuko dugu: 100-150 bat lagun, bestela 11 kilometrotan buxadurak sor daitezke. Toki batzuetan egiten dira antzerako lasterketak, baina ez Soraluze Urban Trail-ek izango dituen ezaugarriekin: dena herrian eta igoerak

egiteko eskailerak bakarrik erabilta..., nik halakorik ez dut ezagutzen. Niri (Jokin Martinez) kirola beti gustatu izan zait, Zeletan bizi naiz eta bizitza osoa daramat eskailerak jaitsi eta igotzen, neuk korrika egin ditut beste lasterketa guztiak eta pentsatu izan dut halako zerbait falta izan zaigula Soraluzen".



Jose Mari Gomez Memorial Atxa lasterketan helmugaratzen.

## Maiatzaren 20an Soraluzeko herriko krosa, Alejandro Rodriguez Memoriale

Jokin Martinezek eta Jose Lukek eman dituzte, baita ere, Alejandro Rodriguez herri krosaren gaineko xehetasunak: "Memorial Atxa 25 urtean zehar antolatzen lagundu zuen pertsonaren omenez antolatu dugu hau. Lasterketa herrikoia izango da, Plaza Zaharreen hasi eta bertan amaituko dena. Maila asko izango ditu: umeendakoak zein helduendakoak. Lasterketa luzeena izango da 10 kilometrokoa (entrenatuta daudenendako); beste bat 5 kilometrokoa (herrikoia) eta 14 urtetik beherakoendako bestelako lasterketa batzuk egongo dira, motzagoak, adinaren arabera. Saiatuko gara mundu guztiak korrika egin dezan. Guraso elkartearekin batzarrak egiten gabiltza hori guztia adosteko, lasterketa asko egongo dira-eta gazteendako, haien artean kirola eta parekidetasuna bultzatzeko. Zirkuitu guztiak izango dira herri barruan, ibilbide desberdinekoak. Plaza Zaharra-Ezoz Bidea-trenbidea-Ola-Santa Ana-eta buelta. (4 buelta izango dira 10 km-ko lasterketa, 2 buelta 5 km-ko lasterketa).

Bestalde, aipatzekoa da lasterketa horren aurrekaria dela Atxa Memoriale. "Hemen aldatu duguna da 5 km-ko lasterketa; izan ere, badago jendea 10 kilometroak korritu nahi edo ezin dituen, eta, gainera ibilbide gogorra da Soraluzekoa, aldapa asko dituelako. Hori kontuan izanda, lasterketa herrikoia ere izatea nahi dugunez, eta kirola sustatzea denez asmoa, 10 kilometroko ibilbidea egin nahi ez duten guztiendako antolatu dugu 5 km-koa. Azken batean, nahiz eta oinez egin, jendea helmugara heldu eta etxera esperientzia onarekin joatea nahi dugu. Horregatik, antolatu dugu beste lasterketa paralelo bat, bieie pareko garrantzia emanez".

# “Futbolari profesionala izatea da nire ametsa”



Ane Fidalgo Ezenarro eta Leire Galeano garaikurra altxatzen, Ataunen. Argazkia: Igor Fidalgo.

Ane Fidalgo Ezenarro (Soraluze, 2007) da Leire Galeano antzuolarrarekin batera, Gipuzkoako Eskolarteko Pilota Txapelketako txapelduna, alebin mailan. Otsailaren 17an irabazi zuen finala, Ataunen, Amezketako bikotearen kontra.

## Zorionak!

Eskerrik asko!

## Zela ikusi zenuen zure burua?

Pixka bat urduri. 10. tantoan lasaitu nintzen, ikusi nuenean, ondo genbiltzala.

## Txapelduna zara pilotan, baina futbolean ere badiharduzu. Izan ere, zu kirolari zara, ezta?

Bai. Futboleko txikitatik nabil, eta multi-kirolean ere bai. Hor probatu ditut eskubaloia, errugbia, eskalada eta judoa.

## Zertan ondoen?

Pilotan eta futbolean.

## Bietan ere, mutilekin bakarrik zabilta. Zailagoa egiten zaizu?

Txikitatik egon naiz eta... Akaso badira neskak baino gogorragoak, baina bueno, ez naute beldurtzen (barre). Sora osoan neska bakarra naiz. Harro nago horrekin.

## Zein litzateke zure ametsa?

Futbolari profesionala izatea. Errealean, edo Alemanian edo Zergatik Alemanian?

Maila hobea dute eta zerbait ordaintzen dute. Hemen neskendako oso gutxi dago. Orain hasi da zerbait mugitzen, pilotan ere. Zela hasi zinen?

Pilotan izena eman barik nengoen, baina noizbehinka etortzen hasi nintzen, eta gustatu egin zitzaidan. Zergatik gustatzen zaizu kirola? Txikitatik asko gustatu zait jokatzeari; eta jokatzeko gainera, dena soltatzeko duzu, poz handiagoa igartzen duzu eta disfrutatu egiten duzu.

## Ze kirolari dituzte gustuko?

Aimar Olaizola eta Aitor Atxotegi pilotan eta futboleko Aritz Albisua, Messi eta Oiarzabal.

## Mutilekin berdintzatzen zaituzte?

Hemen bai. Kanpora goazenean, lehenengo erakutsi egin behar diezu badakizula jokatzeko. Ezkarain, adibidez, esan zidaten erakusteko. Eta gero irabazi egin nien!

## Ikasketak eta kirola lotzeko aukera izango bazenu...

Kirolari edo prestatzaile fisikoa izatea gustatuko litzaidake.

## Neskei zer esango zenieke?

Egin dezatela kirola. Ez dela bakarrik mutilendako, denendako dela. Kirola egin nahi duenak egin dezala, eta besteek zerbait esan arren ere, norberak egin behar duela nahi duena.

## 15 mendi-irteera umeekin batera

Martxoaren 4an hasi eta urriraren bitartean, 15 irteera antolatuko ditu Mendi Taldeak, umeekin batera joateko. Domeketan izango dira, gehienak egun osokoak. “09:00etan irten eta 17:00ak aldera egiten dugu buelta”, esplikatu du Itziar Agirrek, ekimenaren antolatzaileetako batek.

Egutegia ondorengo da: martxoaren 4an, Zuhaitz Eguna; martxoaren 11n, Federazioko Ibilbide Neurtua; martxoaren 25ean, Beizama; apirilaren 8an: Orexa Ulizar; apirilaren 22an, Adarra; maiatzaren 13an, Berretin; maiatzaren 27an, Aia-Pagoeta-Aia; ekainaren 10ean, Otoio Talaia eta ekainaren 16-17an, asteburuko pasa Hondarribira.

Uda ostekoak: irailaren 1ean, San Martzial eguna; irailaren 9an, Atxarte; irailaren 23an, Basandere; urriaren 7an, Kalero; urriaren 21ean, finalista eguna eta urriaren 28an, babajana.

Aurten espeleologia irteera ere egin nahi dute, uda aurretik, 4. mailatik gorakoendako.

## Pilotan ere atek zabal-zabalik neskendako

Soraluzeko Pilota Elkarrekin gogora ekarri nahi du atek zabalik dituela pilotan ikasi edo jokatu nahi duen edozeinendako, baita neskei zuzendutako txapelketak bultzatzen hasi da, eta, beraz, Soraluzeko neskak gonbidatu eta animatu nahi dituzte pilotan jokatzera.

**KLB6**

Kalebarren 6  
943 57 74 26  
Makur-itxarekin modogaitza

Facebook  
Twitter  
Instagram

Pepa Jimena  
**ISOLID**  
**VERO MODA**



**AURREZTU ENERGIA**

Berotu ura eguzki izpiekin edo airearekin

fontanereria  
**Sandra**  
iturgintza

639 179 696 • sandra@iturgintza@gmail.com



**BOLIA**

TABERNA

Piribok, ardiak, korbintok  
**Gazte-giroko festa**



**TXURRUKA JATETXEA**

Sukalde tradizionala  
Eguneko menua  
Asteburutako menu berezia  
Karta  
www.txurruka.com  
Tel.: 943 75 15 81



**KM design**

Kira Modurak 943 76 09 85

karuntxokak@ymhoo.es Pol. Amilaga 5  
www.kmdesign.es BERGARA

- Disenatueta Fabrikazio lanak
- Sukaldeak
- Horma-ornatuak
- Logelak
- Zinak
- Aleak...
- Arotzeria lanak oro har
- Instalazioak

**Fanny Mertzeria**

Arropak konpontzen ditugu  
Santa Ana 22, behea - 688 81 53 92



**Carpinteria MANU Aroztegia**

Aleak  
Bontakak  
Perforakak  
Sukaldeak  
Tutakak

Manuel Cifuentes  
Estazioa 8, barrera - Mug. 636 05 81 25



**Hortz klinika**

27 urteko esperientzia

Javier Alonso  
Makur-itxarekin  
632 463015/6

Katja Gudiño  
Oinarria  
632 463015/6

Erretul 1 - Tel: 943 75 16 13

Irak: ginekologia orokorra, odontologia orokorra, ginekologia eta mugikorra, odontopediatria, ortodontia, maxilarra, estetikoa...



**Txoko**

Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburgeruak, egitarloak, rasiok, pizzaak, gosaria...  
Enkarguak egiten dira  
Tel. 943 75 17 89



**JUAN MARI ARRIANDEGIA**

Artsain Irakaslea  
Etzera eramateko zerbitzua  
Enkarguak hartzen ditugu

943 75 24 40  
MENDIATU-PLAZA



**Kontulan**

aholkularitza  
ABOKATUAK

Errenta-iturperenak - Administrazio lanak  
Tratamendu burokratikoak - Lan-erleko aholkularitza  
Enpresen kontabilitate-aholuzioak - Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. est. 20590 Sorluze  
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

**ELIZPE HORTZ KLINIKA**

Zure gertuko hortz klinika, punta-puntako teknologijekin lan egiten dugu. Cad-Cam sistema berrituzko enbuzerak dugu.

Elizburu, 3 behea  
SORLUIZE  
Tel: 943 75 25 67  
e-mail: elizpe@igmail.com

Ordutegia:  
Astelehenerdik ostiralera  
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00



**MENDIZABAL okindegia**

Ogia - Prentsa - Gosariak

Astelehenerdik ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00  
Larunbatak eta igandeak  
08:30 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel.: 943 75 13 99



**Armendi Jatetxea**

Sukalde tradizionala  
Eguneko menua  
Asteburutako menu berezia  
Karta  
Burduntzian erretako bildotsa  
Etxeko fritokak  
Soufflés  
Tel.: 943 75 10 02



Euskalzaletasunaren alde:

**SOMABE** **Aras** **ALBISUA** **laibi** **SORALUCE**  
ELECTRICIDAD



# Elexpuruk hitzaldia eskainiko du Sardinian euskararen aztarnez

Martxoaren 13an, Juan Martin Elexpuru idazle eta filologo bergararrak hitzaldia eskainiko du iz argitaratu zuen liburuaz: “Euskararen aztarnak Sardinian”. Elexpuruk euskarak Sardinian hizkuntzan eta toponimian laga dituen balizko aztarnak ikertu ditu eta ia bost mila izeneko zerrenda osatu du, “guztiz edo zatiz bat datozenak Euskal Herriko beste batzuekin: Arana, Arga, Arratzu, Ois, Urrosolo...”.

Hipotesi bat ere planteatu du: Mesolito Aroan (duela zortzi edo hamar mila urte) migrazio bat izan zela Euskal Herria-Iberiatik

Sardinian, eta biztanle haiek osatu zutela islako populaketaren oinarria. Beraz, egileak baiezteko erantzuten dio liburu azaleko galderari: “bai, badira euskararen aztarnak Sardinian”. Eta aipatutako Mesolito Aroko migrazioa jotzen du horren eragileztat, baina Neolito Aroan gertatu bide zen ekialdetiko etorria guztiz baztertu gabe, euskararentzat zein paleosardinierarentzat.

Hitzaldia antzokian izango da, arratsaldeko 19:00etan. Antolatzailea Pil-pilean Euskara Elkarte da.



## Ate irekiak, kide berriak erakartzeko

Otsailaren 28an, eguaztena, ate irekien jardunaldia egingo du Ezoziko Ama Abesbatzak. 20:30ean da hitzordua, entsegu-lokalean (Batzokiko lehen solairuan). Zuzendari berria dute abesbatzan, abenduaz geroztik: Aitor Garitano bergarar gaztea. Zuzendari berriak, programa berria ekarri du eta garai berria estreinatu du Soraluzeko abesbatzan. “Programa oso erakargarria ekarri du, denondako, baina bereziki, gazteendako eta gazte sentitzen diren guztiendako: Michael Jackson, Ken Zazpi, Queen... eta halako kantuak. Zuzendaria bera ere oso gaztea da”, adierazi dute abesbatzatik.

Hori horrela, abesbatzako kideek uste dute “momentu ona” dela “herriari deialdia egiteko eta abesbatzara gerturatzeko. Ea jende gaztea animatzen den; ilusio momentua bizi dugu, indarberrituta ere bagaude zuzendari berriarekin eta batzuetan behar izaten da norbaitek atea zabaltzea”, gaineratu dute. Gogora ekarri dute, halaber,



Aitor Garitano abesbatza zuzentzen, aurtengo Santa eskean, otsailaren 4an.

“pazientzia eta gogoaz, eta belarri onaz” aparte, ez dela behar beste ezer abesbatzako kide izateko, alegia, abestearekin edo musikarekin lotutako ikasketarik ez dela behar bertan parte hartzeko.

Gonbita hortxe dago, bada, atek zabalik ditu beti Ezoziko Ama Abesbatzak bertaratu nahi duen edozeinendako, baina bereziki zabalduko dituzte orain, zuzendari berria etorri dela aprobetxatuta.

Santa Agedako eskearekin abiatzen du abesbatzak denboraldia; ekainean-uztailean egiten du beste kontzertu bat; Santa Zezilia dator ondoren, eta Gabonetan egiten dute azken saioa. Horixe da Soraluzeko abesbatzaren jardun oinarritzkoa. Hortik aparte, irteeraren bat edo elkartrukeren bat ere egin izan dute. Entseguak, eguaztenero egiten dituzte, 20:30ean, Batzokiko lehen solairuan.

# Juicerfull: betirakoa den zukugailu naturala



Josean Fulgencio (Soraluze, 1965) pertsona geldiezina da, eguneroko arazoak konpontzen ahalegintzen dena. Armeria Eskolan ikasitakoa, artritis reumatoidea diagnostikatu zioten orain urte batzuk. Gaixotasun horrek min handiak eragiten zizkion artikulazioetan eta ahultasun handia eskuetan. Eta horrek eragotzi egiten zion goizetan laranja zukua egitea. “Mota guztietako zukugailuak probatu nituen, baina batek ere ez zidan konponbiderik eman”, kontatu du. Hori horrela, orain dela hiru urte, zukugailu baterako ideia izan, eta berau diseinatu eta patentatu egin zuen: Juicerfull izena ipini zion.

Juicerfull-en ezaugarri nagusiak honakoak dira: “Laranja zukua modu naturalean egin behar da, argindar barik, zarata barik, garbitzeko modu erraza duen tresnarekin, etxerako diseinu kuriosoa duenarekin eta apurtuko ez denarekin. Gaur egun etxeko tresnak berehala apurten dira, eta batek daki non bukatzen duten: desertuetan, itsasoan... Lau modelo probatu nituen eta orain erabiltzen dudanarekin egin nuen aurrera”.

Iaz patentatu zuen Juicerfull-a Josean Fulgencio, Arrasateko

enpresa baten laguntzarekin eta aholkularitzarekin. Baina ez du fabrikatu tresnarik, crowdfunding bitartez egin nahi du hori. Ideia da 500 halako fabrikatzea. “Jendearen interesa zenbaterainokoa den jakin nahi dut. Ikusiz gero interesa handia dela eta crowdfunding bitartez saltzen bada, errazagoa da enpresek ere interesa erakustea. Azken batan crowdfunding-a izango da jendearen feed-backa jasotzea moduko zerbaite”.

Crowdfunding-erako, pertsona talde bat zukua egiten ipini nahi du, eta bideoa grabatu. Ahalik eta lasterren egin nahi du, ahal bada, uda aurretik. Hainbat aukera emango ditu parte hartzeko: proiektua babestu nahi duenak nahi duen ekarpena egin dezake; baina Juicerfull-a eskuratu nahi duenak 100 euroko ekarpena egin beharko du gutxienez. Juicerfulla Durangoko enpresa batean fabrikatuko luke, leunketa Soraluzen egin eta marmola Bergaran eskuratuko luke. Aluminiozkoa da Juicerfull-a altzairu herdoigaitzezkoa eta granitozkoa. [Juicerfull.es](http://Juicerfull.es) web orrian erakusten ditu Juicerfull aukerak, diseinu eta material mota desberdinekin egindakoak.




1. Josean Fulgencio Juicerfull-arekin, Pil-pilean elkartean.
2. Juicerfull-en diseinuetako bat.
3. Juicerfull-en beste diseinu aukera bat.



**Kontakturako telefonoa:**  
656 75 34 14  
[juicerfull1@gmail.es](mailto:juicerfull1@gmail.es)

# Veronica Ines Tello

## Argentinatik Soraluzera



Askok plazentziatarra dela uste duen arren, 1990eko urriaren 20an etorri zen Soraluzera bizi izatera, 6 urte zituela; amarekin eta Alberto (1983) eta Osvaldo (1984) anaiekin. Aitak hemen urtebete emanda zuen, etxea eta lana lortzen. Veronica Ines Tello Encinas (Buenos Aires, 1985) argentinarra da jaiotzez, eta hantxe dauka familiaren zati handi bat. 2000an eta 2002an bertan izanda da. **Aitaren ama Eibarkoa da, amama Elgoibarkoa... zela bukatu zuen berak Argentinan?**

Gerraren ondorioz, amama eta haren anaia hara joan ziren, amamak 18 urte zituela; eta aita han jaio zen. Argentinara joan ziren bertan familia bazutelako.

### Zergatik etorri zen aita hona?

Amamak Untzagako dorreetan lan egiten zuelako. Aita etorri zen ze hango soldatak ez dira oso onak, eta 3-4 lanpostutan zebilen, gu apenas ikusten gintuela. Amamak esaten zion: hemen etorkizuna izango duzu, zuek eta seme-alabek. Gaur da eguna nik asko eskertzen diodana etorri izana. Nik ez nuke hau aldatuko hara bueltazearren.

### Asko ezagutzen duzu hura?

Nahikoa. Buenos Aires da Madril bezalako zerbait, eta neu egoten naiz periferian. Metrotik irten eta zoramen hutsa da: autoak, taxiak...

## “Lehengusuak hona etorri izan direnean haluzinatu egin dute, pintxoekin...”

ez dute ez semaforo ez ezer ere errespetatzen. Bestalde, grazia eman zidan bertaratu nintzen azken aldian ikusteak errepide handi eta autoen etengabeko joan-etorriarekin batera, ni bizi nintzen inguruan oraindik ere existitzen direla zaldiekin doazen gurdiak, errepide nagusiaren bazterretan. Horrez gain, berehala abisatzen dizute kontuz ibiltzeko, lapur asko daudela; Eta, han gehien jaten dena okela da ze arraina oso garestia da, luxuzkoa. Barbakoa asko egiten dituzte. Eta deigarria egin zitzaidan, baita ere, neskek 15 urte egitean jai handia egiten dutela. Nire 15 urteen festa esaten diote, eta boda baten antzekoa da: lokalak alokatzen dituzte eta neskak aitaren besotik sartzen dira, festa handia egiten dute. Han, lagunak elkarrekin geratzeko, norbaiten etxean elkartzeko dira. Nire lehengusuak hona etorri izan direnean haluzinatu egin dute, pintxoekin, tabernekin... han taberna gutxi daude, eta irtetea nahi izanez gero, diskotekara joaten dira. Nire lehengusuak beti akordatzeko dira hemengo pintxoekin.

1. Veronica Ines Tello lantokiko balkoian.
2. Familia osoa Argentinan, hona etorri aurretik.
3. Veronica, Osvaldo eta Alberto Tello.





**ARRANO**  
taberna  
Etami eta gozatu  
etxeak jentzekoak

Ekaberrueta 6  
Telefonoa: 943 75 24 09



**Ramon Lizarazu**  
ERRIALDI KALITA 24  
TEL. 943 75 10 39

Balnerandutako  
karakateja  
Euskal Oleria

*Jatearen plazerra, bertatik bertara*



**Batzoki**

eguzteko merino  
antzerietatik  
kama eta raiotak

eguztekoak eta  
humborginak  
enikango bereziak

Basilla eta  
lagun antzerki  
herrikariak

Erretelak: 943 71 20 35



**IZKUIRRE**  
Igeltzeritza

Eraikin berriak • Kalitateko emaitza  
Erreforma • Era guztietako igeltzeritza


50 urteko esperientzia - 610 638 913 - 640 867 209

*sutarako egurra salgai*  
pago-egurra, haritz-egurra...




**SUMA**  
basolanak

maig. 635 71 34 08



**bertako**  
Iggogakueh | ascensores  
Iggogailuen mantentze-lanak

LARRIALDI TELEFONOA DOAN  
www.bertako.eus  
info@bertako.eus  
943 90 34 50

**24 orduko** asistentzia abisu guztientzat   
**Iraupen-konpromisorik** gabeko kontratuak  
Orotariko zerbitzua **100 €-tik aurrera**  
**Euskarazko** zerbitzua



**24 ORDU**

**688 886 536**

- Hodi-libraketa.
- Garbiketarak presio handiko urarekin.
- Saneamendu-sareen mantenu prebentiboa.
- Hodien, isurbideen eta estolderiaren ikuskatzea, kamerarekin.
- Uholde urak ateratzea.
- Ezkutuko kutxatilen detekzioa.





**Desatascos**  
**LASTER**

Sagar erreka 21-A • 20590 Soraluze  
Abaromendi bajo 3 • 20810 Orío  
Tel.: 943 751 431  
desatascos@desatascoslaster.com  
www.desatascoslaster.com



Ezenarrotarrak mendigainean, txakurrak lagunduta.

# Mendiaren zaindariak

Soraluzetarrak ez izan arren, egundoko lana egiten dute soraluzetarrena ere baden paraje batean: mendigainean. Osintxuko Julian eta Martin Ezenarro duela zortzi urte hasi ziren lurrak erosten mendigainean, bereziki Soraluzen. Pinudiak garbitu, bertako zuhaitzei hazten laga eta larreak sortzen dihardute orduetik. Dagoeneko 28 hektarearen –28 futbol zelai– jabe egin dira. Diotenez, pinudi "ilunak" larre "garbi" bihurtuta ikustearen "gozamena" jasotzen dute trukean.

ARGAZKIAK: **FERNAN OREGI** TESTUA: **UBANE MADERA**

“Umetatik daukagu amets hori; umetatik mendian ibili gara, aitzak sartu zigun bertako mitologiarekiko, bertako zuhaitzekiko eta animaliekiko maitasuna. Gure garaian ezinezkoa zen lurra erostea, pinudiek asko balio zutelako. Orain pinua ia doan dagoenean, lortu dugu 28 hektarea erostea”. Hala esplikatu du Martin Ezenarro azken zortzi urteotan egindakoa. Eta hori egin du Julian anaiarekin batera, eta, hasieran esandako moduan, mendia maite dutelako eta horrela gozaten dutelako. “Gozamen handia ematen digu bertako zuhaitzak haztea; gure abereak ere baditugu, 15 pottoka, gure lorazainak dira. Eta orain nahi duguna da guk ikusi duguna ondorengoek ere ikustea: mendi ederra”.

“Desbrozadorearekin eta animaliekin” paisajista modura diharduten bi anaia osintxuarrek, baina, egundoko lana egiten dute emaitza hori lortzeko. Mikel Goenaga euren lobak azpimarratu duen moduan, sakrifizioa handia da. “Euren denbora libre dena hemen ematen dute, benetako maitasuna dute lur hauekiko, behorrekiko... Erantzukizun handia hartu dute. Oso polita da hartu duten lana, baina sakrifizio handia da”.

Izan ere, ezenarrotarrek erosten dituzten lursail guztiak garbitzen dituzte: “Guk tratua egiten dugu aurreko jabearekin; hari lurrak erosi eta eurak pinuarekin gelditzen dira. Behin pinua botata, gure lana izaten da inguru hura garbitzea. Lehenengo



Martin eta Julian Ezenarro.

## “Ondare kultural materiala eta inmateriala da Mendigaina, historia handia du bere baitan”

motozerrarekin metro bateko enborrak atera eta piloak egin behar dira. Gero, Aldundiari baimena eskatu eta su ematen zaio. Profesionalek ere esaten dute ikaragarritzko lana dela hori, hori da lanik zikinena. Hemen berez ateratzen da haritza, pagoa eta artea. Guk egiten duguna da utzi irteten. Gero, gure behorrak etortzen dira eta haiek zuhaitza-landare eskasak jan egiten dituzte. Eta poliki-poliki ikusten ditugu bertako landareak sortzen (...) Guk nahi dugu mendia garbi utzi, larretarako. Helburua da betirako geratzea mendia garbi, ikuspegi galantarekin, mendi zoragarria, denok gozatzeko; baina hori da lehenengo animalientzako, izadiarendako eta gero bi hankakoendako”, azpimarratu dute.

### Izugarritzko balioa

Bestalde, mendigainaren balio izugarria azpimarratu dute ezenarrotarrek: “Orain 28 urte bihurtu zuten hau parke naturalistikoa. Euskadiko mendi aipagarrien zerrendan dago, da ondare kultural materiala eta inmateriala, historia handia duelako: dauzka 18 trikuharri, zutarri handi bat, gerra zibileko lubakiak, erromatar kanpaleku bat eta beste gauza asko; adibidez, sumendi izandakoa da inguru hori guztia. Begira zer

dioten Aranzadi elkartekoek: “Zumaiako Flyscha izango da ziurrenik Euskal Herriko sedimentuzko arroka ezagunena mundu-mailan. Jendeak badaki non dagoen, nola eta zergatik sortu zen Bizkaiako Golkoko sinklinalean. Baina, naturak utzitako Paleocenoko sekzio ezberdin guztiak ikusgai dituen haitz miragarri horretaz aparte, hemen, zaharragoak diren beste arroka sedimentario batzuk ere aurki daitezke. Itsaspeko bolkanismoari buruz ari gara, orain dela 100 miloi urtekoa, ia Euskal Herri osoa urpean zegoen momentukoa, zehazki. Momentu horretan bertan, Kantauri itsasoan, erupzioan zeuden sumendiek bere ondarea utzi zuten Sopelanako hondartzan eta Sorluzeko Karakate mendian bereziki. “Pilow lava” izenarekin ezagutzen diren arroka horiek, itsas sakonetik ateratako basaltozko zutabe handiak dira. Eta daukaten kuxin-fomarengatik jarri zieten izan hori”.


Baina etsaiak ere baditu mendigainak, bi anaia osintxuarrek behin eta berriro salatu izan duten moduan: “Motordunak. Haiek dira hemengo arazo handiena. Haiek mendi komun guztiak izorratu egiten dituzte, basoak... dena. Mendi honek irteera asko dauzka, baina Elgoibartik eta Urola haranetik datozen bide denak izorratuta daude. Eta, gainera, mendigainaren %90 pribatua da eta inork ez du besteen jabetzan ibiltzeko eskubiderik, gozatzeko bai, baina ez mendia izorratzeko. Hori batetik. Eta, bestetik, esan nahiko genuke mehatxatuta ere bagaudela; bi salaketa publiko jarri genituen Barrenen eta *Urnobiltza* elkartetik zera erantzun ziguten: *gu %70 baserrikoak gaituk, geure lurretan eta beste lurretan ibiltzen gaituk eta berdin-berdin jarraituko diagu gora joaten eta zeuen esku dago adeitasunez hartu edo aitzurrarekin irten*”. Hori da probokazioa, mehatxua”, diote ezenarrotarrek. Halaber, haiek gogora ekarri dute behin eta berriro salaketak ipinita dituztela: “Hiru udaletan sartuta ditugu, baita Diputazioan ere: Bergararekin, Elgoibarrekin eta Sorluzerekin harremanetan jarrita gaude. Eta urtarrilean berriro ere salaketa sartu genuen Bergaran eta Elgoibarren. Sorluzeko Udalarekin, berriz, harreman oso ona dugu. Sorluzeko Udala ere hasi da lurak erosten. Lur publiko gutxi zeukan. Halakoetan, lur eremu handia saltzea nahi izan duten jabeen kasuetan, jakinda Sorluzeko Udalak horrenbeste ez duela nahi, batzuetan laguntzen diogu lurak erosten, zatika”.



ZORION AGURRAK




**Youssef Ouhammi**  
Otsailaren 27an, 5 urte. Zorionak!! Etxekoan partez.



**Mikel Layza**  
Otsailak 17, 7 urte. Zorionak etxeko terremotoari. Muxu handi bat familiaren partetik.



**Nora Larreategi,**  
Otsailaren 21ean. Zorionak printzesa, patxo handi bat etxeko guztien partez!



**Oier Cid Benayas**  
Martxoaren 23an, 8 urte. Zorionak maitxia!!!! Asko maite zaitugu!!!!



**Bruno**  
Urtarrilaren 22an jaio zen. Ongi etorri Bruno! Zu ezagutzeko desiatzen giñan. Nora, Maren, Miren, Nora eta Elene.



**Urrategi Gantxegi Unanue**  
Otsailaren 26an 57 urte. Zorionak! Pila bat maixe zaitxugu! Etxekoan eta Saran partez!



**Markel Larrañaga Gallastegi**  
Otsailaren 18an, 3 urte. Zorionak potxolo! Patxo haundi bat etxeko danon partez.



**Aitor Leturiondo**  
Martxoan, 50 urte Zorionak! Kuadrillakoen partez.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

**Jaiotakoak**

Aiur Valderrey Acha  
Agustin Cortes Cortes

**Hildakoak**

Sebastian Elizburu Gorrotxategi

ESKELAK

OROITZA

**Mariasun Bandaormatxea Barrenetxea**



Urtarrilaren 29an hil zen 89 urte zituela.

Bizitzak zaildu zintuen artean ume zinana, gazte alargundu gero, hiru haur hazteko, lana, ta halere eman diguzu beti denoi zure onena, izan zaitugu amama ta amarik maiteena.

Ta ezin tragatuta gaude gaur denok zure azkena, joan zara apartera, igarri da hutsunea. Garratza da oso, baina, gauza bat du honek ona: sekula ez dela hiltzen inoiz ahazten ez dena.

Bilobak

I. URTEURRENA

**Jose Luis Iñarra Larrañaga**



2017ko otsailaren 26an hil zen, 78 urte zituela.

Maitasuna ez da inoiz itzaltzen. Inoiz itzaltzen ez delako, gogoan zaitugu.

Etxekoak

**LABURBIRA** Martxoak 15, martitzena  
21:00etan Antzokian.

**TOGETHER ELKARREKIN** Martxoak 20, martitzena  
19:00etan Antzokian.



Antolatzailea:  **PIL-PILEAN**  
Babeslea:  **ERAZKUNEN**

Antolatzailea:  **GURE ESKU BAGO**



**ETORKIZUNA  
ERAIKIZ**

**Gipuzkoaren etorkizuna  
guztion ardura da. Eraiki  
dezagun guztion artean.  
Aurrea hartzea da  
horretarako modu  
hoberena.**

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA  
ERAIKIZ**  
El futuro de Gipuzkoa

[gipuzkoa.eu/etorkizunaeraikiz](http://gipuzkoa.eu/etorkizunaeraikiz)

LASTER ETXE  
GUZTIETAN

**SORALUZEKO GIDA**  
MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GIDA

**2018**

[WWW.PLAENTXIA.EUS/GIDA](http://WWW.PLAENTXIA.EUS/GIDA)



**190 ENTITATE BAINO GEHIAGOREN DATUAK  
MERKATARIAK, ENPRESAK, ELKARTEAK, ARTISAUAK...  
URTEKO EKIMENEN EGUTEGIA  
GOARDIAKO FARMAZIAK**

Argitaratzailea:



**SORALUZEKO  
UDALA**